

‘Karobi’ Elkartea zabaldu dute Latxunbe Berrin

■ 80 sozio ditu eta gehienak auzoko bikote gazteak dira ■ Lokalak 140 metro ditu eta 50 milioi kosta zaie ■ Inaugurazio ofiziala: urtarrilaren 12an.



Karobi elkarteko bazkideak, gustora inaugurazio aurretik.

LATXUNBE Berrik badu bere elkarte: *Karobi*. Duela urte bete pasa hasi ziren proiektuarekin eta atzo arratsaldeko zazpitan inauguratu zuten, luntxa eginez. Lehendakari Manolo Portillo izendatu dute.

‘BAZKIDE FAMILIARRA’ “Karobi elkartearen nobedadea sozioa familiarra izatea da” esan digu Portillok. Bazkideza bikoteka da: bazkideak eta bere bikoteak eskubide berak dituzte. “Eta hori berria da Hernanin” lehendakariak.

URTARRILAREN 12AN Hernanin ohitura da elkarte bat zabaltzen denean, beste elkarteekin, udalarekin... inaugurazio ofiziala egitea. Hori urtarrilaren 12an egingo dute. Atzokoa barrurako inaugurazioa izan zen, bazkideentzat. □



Xabier Amuriza kantari. Argazkia: Alberto Elose-gi. Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentrua.

‘Lazkao Txiki bapateko Sorgina’

■ Xabier Amuriza bertsolariaren emanaldia da ■ 22:30etan Milagrosan.

ETXANOKO bertsolari haundiak Lazkaoko beste bertsolari haundi baten bapateko bertso eta pasarteak kantatu eta kontatuko dizkigu. Kontaketarako ere abilezi latza du Amurizak.

Lazkao Txikiren espektakulua osatu aurretik, Xalbadorrena egin zuen; emanaldi bat Ereñotzun egin ere bai eta jendea oso gustora gelditu zen. Artista bat beste baten ahotik entzun nahi duenak... badaki!

150 igerilari larunbatean Gabonetako torneoan

■ 100 metroko lau proba izango dira ■ Kiroldegia itxita egondo da ■ 09:30etan.



Hernaniko igerilari taldea denboraldi hasierako argazkian.

HERNANIKO Igerilari Elkartek antolatuta, Gabonetako torneo jokatu da bihar, kiroldegian. Igeriketa torneo hau urtero-urtero antolatzen dute eta orain artean behintzat sekulako arrakasta izan du.

LAU PROBA

Goizeko bederatzi eta erdietan hasi eta igerilariak lau proba egin beharko dituzte goiz osoko jardunean: 100 metro bizkar, 100 metro bular, 100 metro librean eta 100 metro lau estilotan. □

ZINEA BITERIN

‘Woman on top’

■ Aktore nagusia: **Penelope Cruz**. ■ Ostiralean, 10:30etan; larunbatean, 17:30etan eta 19:30etan. Astelehenean, 19:30etan. Helduentzat.

Asterix eta Obelix

■ Euskaraz da ■ Larunbat, igande eta astelehenean, 17:00etan.

‘INUXENTE EGUNA’ ATZO

Karabelgo zubia konpondu dute eta Txillidak ez du eskulturarik jarriko

■ Ba omen dira atzo susto ederra hartutakoak. Batzuk penaz, eta besteak Balantxa edo Portutik barrena kotxearekin. Txillida Karreron ikasia da; ‘Ilarik’ burnizko eskultura Karreroko forjan egin zuen; baina bere obra ikusi nahi duenak, Zabalagaraino behintzat joan beharko du. □

GasHernani

Zure etxerako energia naturala
GAS NATURALA

Gudarien Enparantza, Tlfnoa.: 943 33 09 28
20120 HERNANI

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

★ ASISTENTZIA TEKNIKOA,
GAS ETA BEROGINTZAN.
★ GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURALA: MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4



Telemar
ITXASTELE S.L.

Telyco denda
Elkano 13, HERNANI
☎ 943 33 26 00

‘Telefonica’ko banatzailea, Movistar, zentralitak, ‘Centrex’,
Telefono altak, Telefonía mugikorra, Faxak, “Via digital”,...

Eguberrietako eskaintza:
‘Pack Movistar Activa’ 12.900 pztatik
(8.000 pzta deietan)



Zaharren egoitzan ari dira ohe berriak jartzen

■ Bigarren eta hirugarren pisukoak jarriak daude ■ Lehenengo pisukoak falta dira.



Sandiusterriko langileak ohe berriak probatzen.

SANDIUSTERRIN ohe berri gehienak jarri dituzte dagoneko: buru eta hanka aldean botoi bat zapalduta igotzen zaien horietakoak; elektrikoak. Ertzetako barrak (jendea ez erortzeko) itsatsiak dituzte, eta kendu beharrean plegatu egiten dira. *Koltxa* eta *mesa-notxeak* ere aldatu dituzte.

115 BERRI

Horiek dira guztiak. Ia denak etorri badira ere lehenengo pisukoak falta dira oraindik. Aurrekontua 15 milioitakoa da.

Jakin dugunez, horrelako ohe elektrikoak dituen Gipuzkoako lehenengo zaharren egoitza da Hernanikoa.

ERIZAINAK GUSTORA

Ohe zaharrak, lehenengo ospitala zenetik eraman zituzten Sandiusterrira. Batzuk manibelaz igo eta jeisten ziren, eta besteak eskuz. Enfermerentzat nekosoak eta helduentzat arriskutsuak ziren. “Orain lana asko erraztuko zaigu” esan digute bertako langileek. □

BOLEIBOLA KIROLDEGIAN

Entrenatzaile, arbitro eta jokalarik gazteentzat ikastaroak

■ Entrenatzaile eta arbitroek federazioko titulua jasoko dute, ikastaroa gaindituz gero ■ Jokalarietan 5 berri eta kadete taldekoak ari dira entrenatzen.



Boleiboleko gazteak, entrenamentuan.

GABONETAKO oporrak tarteko, Hernaniko Boleibol taldeak jokalarik gazteak martxan jarri ditu, Eusebio eta Cerdanen eskutik. Hamabost bat gazte joaten dira goizero teknika ikasi edo hobetzera.

ENTRENATZAILE ETA ARBITRO

Entrenatzaile ikastaroetan 9 lagun ari dira; arbitroenetan 10. Jende gehiegi apuntatu zela-eta, beste horrenbestek Andoainen hartuko di-tuzte klaseak datorren astean. Ikastaroa gainditzen duenak titulua ofiziala jasoko du, eskolar mailako gazteak entrenatu edo arbitratu ahal izateko. □

HITZ BITAN



Senideak presoan aldeko kontzentrazio batean.

✓ SENIDEAK ELKARTEA

Hileroko enkartelada gaur. Hileko azken ostiralean egiten du Senideak Elkartea presoan eskubideen aldeko enkartelada. Gudarien Plazan, ilunabarreko 20:00etan. Urte zahar egunean, berri, kontzentrazioa egingo dute *Euskal presoak Euskalerrira orain* lemapean; Plazan bertan, 13:00etan.

✓ UDAL TALDEA

Espetxeetako zuzendariei eskutitzak. EH-ko udal taldeak itxialdia egin zuen aurreko astean. Hor, espetxeetako zuzendariei gutun bana bidali zieten presoan egoera salatu eta Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzeko.

✓ BITERI KULTUR ETXEA

Ikastaroetan izena emateko azken eguna, gaur. Saskigintza, sedazko ohialetan margoketa eta muebleak zaharberritzea dira orain martxan jarriko diren hiru ikastaroak. 60 ordukoak guztiak: hasi urtariletik eta maiatzera artekoak. Prezioa: 8825 pezeta.

✓ KONTZERTUA

Kantuz abesbatzaren kontzertua, gaur Milagrosan. Eguberrietako eliz musika kontzertua izango da. Milagrosan, arratsaldeko 19:30etan.

✓ SANDIUSTERRIKO ZAHARREN EGOITZA

‘Gazteak’ Laukotearen emanaldia bihar. Gabone-tako ekitaldiak aurrera doaz Sandiusterrin. Atzo Puntu txapelketa izan zuten. Larunbatean, berri, Gazteak Laukotearen ikuskizuna.

✓ GOBERNU BATZORDEA

14 puntu aztertuko dira 13:30etan hasita. Udal gobernu taldeak asteroko bilera du gaur 14 puntuko gai ordena aztertzeko. Tartean: Jauregiko Butanon jarri eta kendu egiteko etxetxoa jartzea, datorren urteko auzolandegiak, San Joanetako kontu likidazioa... Bestalde, atzo plenoa izan zen udaletxean. Bukaeran, *Olentzero* batek ikatza eman zien oposizioko zinegotziei, presoan eskubideekin izandako jarreragatik. □

IRRATIAK

(F.M. 99.2): 11:40etan: Irauliori elkarrizketa 12:00etan: Xabier Amurizarekin hizketan, Lazkao-Txiki bapateko Sorgina emanaldiari buruz. 12:30etan: Amagoia Etxeberria, Doberako Kilkerra haur taldeko kidea.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

►Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia, 15
☎ 943 554892
►Gauetz: Zatarain
Andoain. Arteta, z/g
☎ 943 590802

Lizeaga
taberna

Biktor Hugo 5
Tel 943 333082
HERNANI



MUEBLES HERNANI

Esposizio aldaketagatik,
Beharpen bereziak.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak